

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: 2025eko LOINATZ JAIETAKO KARTELA ETA IKASTETXEEN ARTEKO 2025eko LOINATZ JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua 2025eko Loinatz Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatzea da. Gainera, kartel irabazlea jaietako egitarauaren azala izango da. Aldi berean, 7-15 urte bitartekoentzat eskolen arteko jaietako kartelen beste lehiaketa bat antolatzea, gaztetatik horrelako ekimenekiko interesa eta zaletasuna pizteko.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

1.- Kartel-lehiaketako parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dira:

- A taldea: 2009 (barne) urtera arte jaietakoak.
- B taldea: 2010-2018 (biak barne) urte bitartekoetan jaietakoak.

2.- Edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira: argazkia, collagea, pintura, eta abar. Lanen neurriak honako hauek izan behar dute: 42x 60 cm. edo horren proportzioko tamaina. **Formatuak, nahitaez, bertikala izan behar du.**

3.- A eta B Karteletan derrigorrean **“2025eko LOINATZ JAIK”** esaldia azaldu beharko da idatzita, norberak egokien ikusten duen moduan.

4.- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, testu fitxategi batean hartzailearen datu pertsonalak eta NAN dokumentuaren kopia atxikita egon beharko da.

5.- Ikastetxeen kasuan, erantsitako fitxategiak egileen izena eta IFK eta ikastetxearen izen osoa jasoko ditu.

6.- Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute eta ezingo dute aldarrikapen politikorik edo sexistarik izan, ezta estereotipo sexistekin ala alkoholaren edo drogen kontsumoarekin zerikusirik duen mezurik, irudirik edo bestelako elementurik.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Sariak hauek izango dira:

-A taldeko irabazleari: 600* €

-B taldeko irabazleari: 180* €

*Sariei indarreko PFEZren kenketa egingo zaie

Saria eman gabe gera daiteke epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate-mailarik ez badute.

4. Eskerak non eta noiz aurkeztu

A Taldea:

Derrigorrez lanaren bertsio digitala (JPG formatuan) aurkeztu beharko dute, nahiz eta bertsio fisikoan aurkezteko aukera ere izan.

Lanak aurkezteko bideak hauek dira:

- Bertsio digitalean: Posta elektronikoz kultura@beasain.eus helbidera bidali edo Herritarrentzako Informazio Gunean (IGunean) aurkeztu USB batean.

- Bertsio fisikoan: Herritarrentzako Informazio Gunean.

B Taldea:

Lanak Beasaingo Udaleko Kultura azpisailean bulegoan utziko dira.

Lanak, bi taldekoak, **2025eko martxoaren 30eko gaueko 23:59ak baino lehen** aurkeztu beharko dira.